

DISFAGIA


ZER DA? Elikagaiak irensteko zailtasuna edo alterazioa (solidoak zein likidoak). Zainketa batzuk beharrezkoak dira hainbat gaixotasun saihesteko, besteak beste **ARNAS INFEKZIO LARRIA**

ZERI ERREPARATU BEHAR DIOGU?

- Eztula eta/edo karraskada jarraituak izatea jaterakoan edo jan ondoren.
- Janaria eztarrian trabatuta geratzea maiz.
- Jan ostean ahotsaren kalitatea/tonua aldatzea.
- Lerdea sarritan jariatzea.
- Ahoan janaria pilatzea.

JATERAKOAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK:


PAZIENTEAREN POSIZIO EGOKIA:




- Eserita eta **BIZKARRA ZUZEN**
- Ohean badago, ahalik eta altxatuen jarri beharko du. Gauza bera egin elikagaiak zunda bidez ematen direnean ere.
- Irensterakoan, kokotsa bularraldera okertu behar du (horrela arnasbideak babesten dira).

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:


- Pazienteak ez du arretarik galdu behar jaten ari den bitartean.
- Ez eman jaten pazientea erdi-lo edo oso urduri badago.
- Pazienteak **EZ DU HITZ EGIN BEHAR** jaten ari den bitartean.



ZAINTZAILEAREN POSIZIO EGOKIA:



- Jaten ari denean, senide edo zaintzaile batek **ZAINDU** behar du une oro.
- Zaintzaileak **PAZIENTEAREN BEGIEN MAILAN EDO HORIEN AZPITIK EGON BEHAR DU (LEPOA LUZA EZ DEZAN)**



- Ahal bada, **KOILARA TXIKIAK** erabiliko dira (postrekoak), bolumen txikiak irenstea errazagoa delako.
- **EZ ERABILI INOIZ LASTORIK EDO XIRINGARIK** pazienteari jaten emateko: koilaratxoarekin seguruagoa eta onuragarriagoa da, mingainaren gainean egiten duen presioak irensteko erreflexua sustatzen duelako. Badaude edalontzi berezi batzuk, ortopedietan eskuratu daitezkeenak: **«DISFAGIA-EDALONTZIAK»**

JAN ONDOREN:

- Pazienteak eserita egon beharko du jan ondoko **30 EDO 60 MINUTUETAN**.
- Garrantzitsua da pazientearen **AHOAN BEHAR BEZALAKO HIGIENEA** mantentzea, horrela erosoago egongo baita.